

IZENA EMATEKO FITXA

IZEN-ABIZENAK _____

ABIZENAK _____

SGAEKO BAZKIDEAREN ZKIA _____

IZENBURUA _____

HELBIDEA _____

POSTA-KODEA _____

UDALERRIA _____

PROBINTZIA / HERRIALDEA _____

TELEFONOA(K) _____

E-POSTA _____

MATERIALEN BIDALKETA


SGAE Fundazioa. Ikus-entzunezkoen Saila
Bárbara de Braganza 7. 28004 Madril

SGAEren Ordezkaritza Nagusiak eta egoitzak, bai Espainian, bai atzerrian (helbideak bilatzeko: www.sgae.es)

Interesdunek, kontsultak egin ditzakete eta Oinarri hauei buruzko informazio gehiago jaso helbide hauetan:

informacion@fundacionsgae.org
audiovisuales@fundacionsgae.org
www.fundacionsgae.org
www.sgae.es

fundación  sgae fundazioa



XII SGAE SARIA
FILM LUZERAKO GIDOIEN
“JULIO ALEJANDRO” 2015

SGAE Fundazioak, ikus-entzunezko arloan dagoen eduki-eskaera gero eta handiagoaren aurrean, ezinbestekotzat jotzen du promozio-marko bat sortzea bai sektore horretako egileen sorkuntzen kalitatea sustatzeko, bai gidoi-sorkuntzaren bitartez proiektu zinematografikoak abiarazteko. Hori dela eta, deialdia egiten du SGAEren XII. Film luzerako Gidoiaren "Julio Alejandro" Sarirako. Sariari izen hori eman zaio gidoilari eta antzerkigile espainiar ospetsuaren omenez, bere lanak zinema iberoamerikarrean hainbeste eragin zuen eta.

SGAE SARIA

FILM LUZERAKO GIDOIEN

"JULIO ALEJANDRO" 2015

GINARRIAK

01

Lehiaketara aurkeztu ahalko dira SGAEko kide diren egile guztiak, edozein nazionalitatekoak izanik ere, baldin eta komunitate iberoamerikarrean bizi badira.

02

Aurkeztutako gidoiak Estatu espainiarreko nahiz estatu iberoamerikarretako edozein hizkuntza ofizialetan idatzi beharko dira eta jatorrizkoak, argitaragabeak eta fikziozko film luzerako idatziak izan beharko dute. Ez da onartuko egilearen beraren nahiz beste egileen lanen moldaketarik. Aurkeztutako lanak aurrez filmatu gabea izan beharko du eta ezingo du filmatzeko konpromisorik izan inongo ikus-entzunezko enpresarekin, lehiaketara aurkeztu den unetik epaimahaiak erabakia hartu arte. Era berean, lehiaketatik baztertu egingo dira SGAEren XII. Film luzerako Gidoiaren "Julio Alejandro" Sarira aurkeztu aurretik sariren bat jaso duten gidoiak, bai eta lehiaketa horretara aurkeztu eta erabakia hartu bitartean saritutakoak ere.

03

Jatorrizkoak lanbide zinematografikoan erabiltzen diren ohiko formatuetako batean aurkeztu beharko dira. Horrez gain, Espainian eta Iberoamerikako ohiko filmazioetara egokitutako metrajea izan beharko dute. Ez da onartuko laburpenik, ez tratamendurik, ez gidoi amaitu gaberik.

04

Lanak euskarri digitalean aurkeztuko dira (CD). Egileen anonimotasuna zaintzeko, lanak aurkezterakoan izenburua besterik ez da zehaztuko. Izenburu hori lelo gisa erabiliko da. Lana gutun-azal baten barruan sartuko da eta gutun-azalaren kanpoaldean izenburu bera idatziko da, baita zer saritara aurkeztu den ere.

Gutun-azalaren barruan hurrengo hauek sartuko dira:

A

Lehiaketara aurkeztutako testuaren agiria duen CDa, egilea identifika dezakeen ezaugarriarik gabe.

B

Plika: gutun-azal txikiagoa, itxia, lelo berdinarekin. Bertan, honako hau sartuko da: Jabetza Intelektualaren Erregistroan izen-eman izanaren ziurtagiria, parte-hartzailearen edo parte-NANaren fotokopia, oinarri hauei erantsita dagoen izen-emateko orria atal guztiak beteta, eta lehiakidearen edo lehiakideen curriculum vitae laburra. Dokumentazio horrekin batera, lehiakidearen adierazpena aurkeztu beharko da, lana ekoizpen-foro nahiz promozio-jardueretan era mugatuan zabaltzeko baimena emanez, zinemako-errealizazioa bultzatzeko helburuarekin, halakorik egotekotan. Aipatutako agiriren bat aurkeztu ezean, lehiakidea kanporatu egingo da.

05

Gidoiak jasotzeko epea 2015eko maiatzaren 25etik uztailaren 15era (barne) izango da. Muga-egunean egindako posta ziurtatuaren bidez egindako bidalketak onartu egingo dira, nahiz eta beranduago jaso. Gutun-azala posta ziurtatuz bidali beharko da edo, bestela, eskura eman SGAE Fundazioan (Barbara de Braganza, 7, 28004 – Madril) nahiz SGAEren edozein Egoitzatan, bai Espainian, bai atzerrian (www.sgae.es).

06

Sariaren Epaimahaia (SGAE Fundazioak izendatuko du, baita bertako Lehendakaria ere) zinema arloko egile eta profesionalak osatuko dute. Epaimahaiak hiru finalista aukeratuko ditu eta 2015eko urriko lehenengo hamabostaldian iragarriko ditu. Sariaren Epaimahaiaren behin betiko erabakia 2015eko urriko azkenengo astean egingo den ekitaldian jakitera emango da.

07

Saria ezingo da jabegabe geratu eta Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da. Epaimahaiko kideen boto berdinketa balego, Lehendakariak kalitateko botoa erabili ahalko luke.

08

Lehiaketak honek sari bakarra eta zatiezina du: hogeita bost mila eurokoa (25.000 €). Saririk irabazten ez duten bi finalistek, izendapen horrengatik hiru mila euro jasoko dute (3.000 €). Zenbateko horiek indarrean dagoen legeriak ezartzen dituen zergen menpe egongo dira.

09

Egile saridunek hitzemandu dute saria esleitzen zaienetik sinatutako lagatze-kontratuaren esplizituki honako hauek zehaztuko direla: etorkizunean egindako film luzearen kopietan, bai euskarri zinematografikoan, bai bideoerakikoan, bai beste edozein euskarritan edo promoziorako materialetan "SGAEren XII. Film luzerako Gidoiaren "Julio Alejandro" 2015 Saria" aipamena eta SGAE Fundazioaren logotipoa.

10

SGAE Fundazioak saritutako gidoiaren nahi duen ale kopurua argitaratu ahalko du, hala erabakitzen duenean. Argitalpenaren salmentatik eratorritako eskubideak egileak edo egileek jasoko lituzkete. Saritutako lanaren egileak edo egileek hitzemandu dute SGAE Fundazioarekin dagokion argitaratze-kontratua sinatuko dutela, argitaratzaileak ezarritako ohiko baldintzetan, argitalpena burutzekoan.

11

Saritutako testua jakitera eman ondoren, finalista izendatu ez diren lanen aleak suntsitu egingo dira. Ez da alerik itzuliko, ezta haien gaineko postazko harremanik izango ere.

12

Parte hartzaileek, lehiaketan parte hartzen duten heinean, oinarri hauek osoki onartzen dituzte, baita Epaimahaiaren erabakiak ere.

13

Parte-hartzaileek SGAE Fundazioa erantzukizun orotatik salbuesten dute, baldin eta haietakoren batek plagiorik edota indarrean dagoen lege-urraketarik egingo balu.

14

Erreklamaziorik edo gatazkarik izanez gero, bai parte-hartzaileak, bai antolakuntza Madrilgo hiriburuko Auzitegien jurisdikzioaren mende egongo dira.